

# HAU DA ALBISTEAREN TITULARRA!!!!

*Azpititularraren bidez, albistearen datu garrantzitsuenak aipatzen dira. Negritaz idazten da albistearen testutik bereizteko. Gainean zein hasierako parrafoanjoan daiteke.*



*Argazkian Albistearen protagonista ager daiteke.*

## Zeri deitzen diogu albistea ?

Argi dago, albiste batean intereseko gertaerak aipatuko ditugula. Albiste batek 5 ezaugarri hauek hartuko ditu kontutan:

1. Gaurkotasuna.
2. Berria izatea.
3. Egia izatea.
4. Aldizkakoa izatea
5. Interes publikoa izatea.

Albistea idazteko, iturriak beharrezkoak dira; informazioaren iturriak hauek, izan daitezke:

**Zuzenekoak, erakunde publikoetakoak(gurutze gorria, ertzaina, DYA, Udaletxea...), Exklusiban lortutakoak, agentziaren**

**bidez** lortutakoak, baina beti fidagarriak izan behar dira.

Albiste batetan 6 W ak kontutan hartu behar dira. sei galdera hauei erantzun behar zaie:

### **ZER**(What)

gertatu da.

**NORTZUK**(Who) dira protagonistak.

**NON**(Where) gertatu da.

**NOIZ**(When) gertatu da.

**ZERGATIK** (Why)

Gertatu da.

**NOLA** (How)

Gertatu da.

### **Albistearen egitura.**

Albiste batetan, ahalik eta informazio gehien leku gutxitan sartu behar da. Datu garrantzitsuenak aipatuz hastea komeni da. Gero, interesgarriak diran gainontzekoak azalduko ditugu.

### **EKINTZAK:**

- Aldizkari zein egunkari batetik hartutako artikuluko batetan, aurrerago aipatutako ezaugarri guztiak identifikatu.

- Zure inguru hurbileko pertsona bat aukeratu eta berari buruzko artikuluko bat idatzi azaldu ditugun ezaugarriak erabiliz.



*Argazkietan, Aipatutako albistea non gertatu den erakutsi daiteke*